

**ALKATETZA
DEKRETUA**

2026 000003295

Espediente-zenbakia: 2026/IDA_ERA_0063

**BIZKAIKO DANTZARIEN BILTZARRAREKIN 2026 URTEKO ZUZENeko
DIRULAGUNTZA HITZARMENA SINATZEA ETA GASTUA ONARTZEA****Xedea**

Bizkaiko Dantzarien Biltzarrarekin 2026 urteko Bizkaiko Dantzari eguna Bermeon antolatzeke, Bizkaiko Dantzarien Biltzarrarekin zuzeneko dirulaguntza bideratzeko hitzarmena sinatzea eta gastua onartzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: Bermeoko Udalak, 2026ko urtarrilaren 29an izandako Osoko Bilkuran, udalak eskaintzen dituen dirulaguntzen 2026-2028 urteetarako Plangintza Estrategikoa onartu du.

Bigarrena: 2026 urteko aurrekontuan, Bizkaiko Dantzarien Biltzarraren aldeko dirulaguntza nominatiboa jasotzen da, 2. ardatz estrategikoaren barruan (Bermeo bizia). Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 28.1 artikularen arabera, dirulaguntza nominatiboak bideratzeko hitzarmena sinatu behar da.

Hirugarrena: Bizkaiko Dantzarien Biltzarraren programarekin lortu nahi diren helburuak, 2026ko Bizkaiko Dantzari eguna Bermeon antolatzea, Bermeoko Alkartasuna Dantza taldearen 50. urteurrena izanik eta Bermeoko herritarrek eta Bizkaiko beste herrietakoek ere, 3.500 dantzari inguru elkarrekin dantzan ikusteko aukera izatea.

Laugarrena: 2026ko martxoaren 24an, Kulturako teknikariak justifikatze memoria egin du.

Bosgarrena: 2026ko apirilaren 16an, Idazkaritza Saileko Administrazio Orokorreko Teknikariak txostena egin du.

Seigarrena: 2026ko maiatzaren 13an, Kontuhartzaileak 29/2026 zenbakidun aldeko fiskalizazio txostena egin du, ohar batekin.



Zazpigarrena: 2026ko maiatzaren 13an, Kultura teknikariak justifikatze memoria zuzendu du, Kontuhartzaileak adierazitako oharrekin.

Argudioak

Lehenengoa: Gastuak, beharrezko atxikipena dauka (RC 2026/000260)

Bigarrena: Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 5. artikulua, Toki Erregimenaren Testu Bateratua onartzen duen 781/1986 EDLaren 111. artikulua, Herri Administrazioen Prozedura Administrazio Orokorra onartzen duen 39/2015 Legearen 86. artikulua, Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorra, bere 28.1 artikuluan, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legeak bere 6. artikuluan eta Sektore Publikoaren Erregimen Juridikoa arautzen duen 40/2015 Legearen 47. artikuluan eta hurrengokoetan xedatutakoak hartu dira kontutan.

Hirugarrena: Hitzarmena onartzeko ahalmenari dagokionez, Toki Erregimena arautzen duen 7/1985 Oinarri Legearen 21.1. artikuluan f) eta s) ataletan jasotakoaren arabera, alkateari dagokio baina 2026ko otsailaren 26ko 1131. zenbakidun Alkatetza Dekretuz onartutako delegazioen ondorioz, ahalmen hori Tokiko Gobernu batzarrarengan dago delegatuta. Horrela izan arren, kasu zehatz honetan, premiatasunagatik, eskumen hori abokatzea proposatzen da alkateak zuzenean eramateko.

Erabakia

Goian aitatuko guztia kontuan hartuta, honako hau erabaki dut:

LEHENENGOA: Bizkaiko Dantzarien Biltzarrarekin zuzeneko dirulaguntza bideratzeko hitzarmena sinatzea eta gastua onartzeko, Tokiko Gobernu Batzarrarengan egindako delegazioa abokatzea, alkateak zuzenean eramateko.

BIGARRENA: aurrekontuko 00400-33410-481.01.09 partida ekonomikoaren pentzura, Bizkaiko Dantzarien Biltzarrari 24.000 €-ko gastua onartzea eta esleitzea (AD), hitzarmenean agertzen den programako gastuentzat.

HIRUGARRENA: Ordaintzeko modua honakoa izango da: hitzarmena sinatu ondoren, zenbatekoaren %80a, hau da, 19.200 € (O) eta %20a, hau da, 4.800 €, dirulaguntza behar den moduan justifikatu ondoren.

LAUGARRENA: Euskararen ordenantzak xedatzen dituen kultura, kirol, aisialdi elkarte, musika talde eta bestelakoei dirulaguntzak emateko baldintzak bete behar ditu dirulaguntzaren jasotzaileak.



BOSGARRENA: Interesdunari erabakiaren berri ematea, hitzarmena sinatu dezan.

SEIGARRENA: Erabaki honen barri Idazkaritza, Ekonomia, Kontabilitatea eta Diruzaintza sailei jakinaraztea.

ZAZPIGARRENA: Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratzeko agindua ematea Kultura eta Hezkuntza Sailari.

ZORTZIGARRENA: Hurrengo Osoko Bilkuran erabaki honen berri ematea.

Oharra: sinadurea eta data orri-oinean .



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07EA0016351800S2U2A5S4A4R1

Sinadurea eta data

NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 13/05/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU
ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 13/05/2026 14:51:26

EXPEDIENTE ::
2026IDA_ERA_0063

Fecha: 24/03/2026

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:

Erregistro nagusia

